

IBILBIDE LITERARIOA  
INTXAURRONDO

PLAZARA GOAZ  
2018-10-27

OTXOKI PASEALEKUA  
 Otxoki nere jaiotetxeari, 1968  
 Patxi Lazkano

Ni naiz Otxoki deitzen nautena,  
 hola zan gure etxea,  
 neronen bistan egokitu zan  
 teilatuak lur jotzea;  
 hura ikusita nere barruak  
 pasatu zuen trantzea,  
 nere bihotzak dadukan penik  
 ez da posible kentzea.

Gu bezelaxe famili asko  
 dirade errukarriak,  
 baserritikan bota gaituzte  
 ta kalera etorriak;  
 batzuk dirade amona zaharrak,  
 beste batzuk elbarriak,  
 hoientzat ere iritsi dira  
 munduko egun gorriak.

Jaiotzetikan ohituak geunden  
 baserri zabal batean,  
 kanpo-lanean jarraitu  
 degu joan diran zenbait urtean;  
 egun batetik bestera danok  
 sartu gaituzte lurpean,  
 orain kalean bizi beharra  
 lau paretaren tartean.

Han utzi ditut aran arbolak,  
 utzi ditut gereziak,  
 han utzi ditut piko ta udare,  
 sagar geza ta gaziak;  
 nere bihotzan zain bana dute  
 han dauden arbol guziak,  
 nere barrena samindutzen du  
 horrela galtzen utziak.

PEDRO MARI OTAÑO KALEA  
 (1857, Ziziurkil - 1910, Rosario, Argentina)  
 Limosnatxo bat, 1893

Mutil koxkor bat itsu-aurreko  
 zuela aldamenean,  
 gizon burusoil, bizarzuri bat,  
 bi makuluren gainean,  
 kale eskinan ikusi nuen  
 inora ezin joanean  
 ta bera nor zan jakin nahiean  
 inguratu nintzanean  
 limosnatxo bat eskatu zidan  
 Jainkoaren izenean.

Zerbait emanaz galdetu nion,  
 ahal zan modu onenean,  
 jaiotzatikan al zeukan ala  
 gaitzak hartua mendean;  
 erantzun ziran: «Ez, semea, ez;  
 nik sasoi nuenean,  
 ez nuen uste iritsitzerik  
 honetara azkenean ...  
 Gaur limosna bat eskatutzen det  
 Jainkuaren izenean».

Eta segitu zuen esanaz:  
 «Lehengo gerrate denean  
 ni aurre samar ibiltzen nintzan  
 beti edo gehienean,  
 nekatu gabe aisa igoaz  
 aldapik luzeenean;  
 ez zan burura asko etortzen  
 gu hala gebiltzanean  
 gero limosna eskatutzerik  
 Jainkoaren izenean.

Odola bero eta burua  
 harroa dagoenean,  
 edozein moduz sartutzen da bat  
 halako itsumenean;  
 atsekabe ta negar saminak  
 badatoz ondorenean;  
 nolaerebait batek bizia  
 utzitzen ez duenean,  
 limosnatxo bat eskatu behar  
 Jainkoaren izenean.

Inoiz pentsatzen nere artean  
 ni jarritzen naizenean,  
 gaur ere asko dirala joango  
 lirakenak zuzenean,  
 ez luke inork sinistatuko  
 zer pena ematen dian.  
 Ai!, horla nintzan ni ere sano  
 eta gazte nengonean...  
 Gaur limosna bat eskatutzen det  
 Jainkoaren izenean.

Ai!, txorakeri asko egiten  
 da zentzurik ez danean,  
 sinistra zazu ur hau pasea  
 daukanaren esanean;  
 hobego da sasoi dan arte  
 saiatutzea lanean,  
 negar eginaz ibili gabe  
 gero denbora joanean,  
 limosnatxo bat bildu ezinik  
 Jainkoaren izenean».

## Amerikako Panpetan, 1900

Euskal Herriko lur maite hartan  
 jaio nintzan baserrian,  
 itzal haundiko intxaur arbol bat  
 dago gure atarian;  
 haren ondotik irtenda noiznahi  
 maldako gaztainadian,  
 edo sagarrik onenak jaten  
 luberriko sagastian,  
 arbol tartean bizitu nintzan  
 gazte denbora guztian.

Denak utzita etorri nintzan,  
 lur hau ikusi nahi nuan!  
 Haritz tantaiak, pago lerdanak  
 nola ez izan goguan!  
 Orain artzantzan Ameriketean  
 arrantxo baten onduan,  
 eguna pasa larrean eta  
 jiratzen naizen orduan,  
 nere begiak gozatzen dira  
 aldameneko onbuan

Hainbesteraino tristetutzen naiz  
 eremu zabal hoietan,  
 arbolak, mendi eta errekek  
 falta diran zelaietan,  
 non etorrita eseritzean  
 onbutzar honen zainetan,  
 edo igota hosto tartean  
 bere adar bikainetan,  
 ene, amatxo!, nik nola esan  
 zenbat gozatutzen detan!

Txabol ondoko onbu laztana,  
 maitatzen zaitut gogotik,  
 eta bihotza erdibitzen zait  
 joatean zure ondotik,  
 nere burura ekartzen dezun  
 oroimen gozoagatik.  
 Zure itxura ikusi nahi det,  
 ez dizut eskatzen frutik.  
 ni hemen bizi naizen artean,  
 arren, egon zaite zutik!

Nere lagunik maitatuena,  
 onbu laztana, zu zera,  
 hargatik nator zure kolkora  
 ni malkoak isurtzera,  
 iduriturik naramazula  
 atariko intxaurpera...  
 Beti izango zaitut gogoan,  
 baina joan nahi det ostera  
 euskal lurreko arbolpe hartan  
 nere hezurak uztera.

JOANA ALBRET KALEA  
(Nafarroako Erregina, 1528-1572)

Iesus Krist Gure Iaunaren Ebanjelioko  
doktrina puraren araura bizitzeko desira duten Franzesek  
konsentimendu komun batez  
beren fedeaz egin duten KONFESIONEA  
Joanes Leizarraga (Beraskoitze, 1506- Bastida, 1601)

Guk dugu sinesten eta ezagutzen Iainko bat bera dela, eta hura esentia bakoitz bat bera, espiritual, eternal, inbisible, mutatzen ez dena, infinito, konprendi ez erran ezin daitena, botere guzitako, guziz zuhur, guziz on, guziz iusto, eta guziz miserikordioso.

Eta Iainko bat ber haur, gizonei zaie hunelako manifestatzen eta erakusten, lehenik bere obren kreateaz, konserbatzeaz, eta gobernatzeaz. Berzalde are klarokiago, bere hitzaz: eta hitz haur manifestatu ukan du lehenik bisionez eta rebelationez: eta gero nahi ukan du liburutan eskribuz iar ledin, eta liburu hauk ditugu deitzen Eskriptura Saindu.

HEUSKALDUNEI  
(Testamentu Berriaren sarreran)

Bat-bederak daki heuskal herrian kuasi etxe batetik berzera ere minzatzeko maneran zer diferentia eta dibersitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajeaz den bezenbatean ahalik gehiena guziei adieraziteari iarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lengoaje bereziri: eta badakigu ezen denborarekin anhitz hitz eta minzatzeko manera eridenen dela obra hunetan berzela hobeki erran zatenik: halakoetan, gauza zeren den dakitenetarik bat-bedera, orhoituren da, othoi, ezen hunelako gauzak, guziz lengoaje oraino usatu gabe batetan ezin behingoaz halako perfektionetan iar daitezkel, nola behar bailizateke: guziagatik ere minzatzeko maneran anhitz arrastatu gabe, Iainkoaren hitz purari iarreikiteko desira dutenek, esporzu dugu eridenen dutela (suporturekin) zerzaz kontenta. Eta baldin esperanza dugun bezala, oraindrano egin den hunetan heuskaldunak gozorik edo edifikationerik hartzen badu, hunetan enplegatu izan diradenek bihotz harturen dute, oraindanik gogo ere duten bezala, egin denaren berriz ikusteko eta korrijitzeko: bai eta, baldin Iainak hala plazer badu, pasaje difizilenen deklaragarri anotationen ezarteko. Iainkoak othoi, haren desohoretako den doktrina guzia ezagut erazirik eta konfunditurik, haren ohoretako dena bethi entreteni eta abanza dezala Iesus Krist bere Seme gure Iainaren izenean. Amen.

ARTIKUTZA PLAZA  
Berdabioren kantua, 1747...

Goizuetan bada gizon bat  
deitzen diote Trabuko  
hitzak ederrak, bihotza faltso,  
sekula ez zaio faltako  
egin dituen dilijentziak  
berari zaizko damuko.

Ongi, ongi oroitu hadi  
zer egin huan Elaman:  
difuntu horrek izandu balu  
jarraikilerik Lesakan  
orain baino lehen egongo hintzen  
ni orain nagoen atakan.

Nere andreak ekarri zuen  
Aranaztikan dotea,  
hobe zukean ikusi ez balu  
Berdabioko atea,  
orain ez zuen hark edukiko  
dadukan pesadunbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen  
zeren ez naizen bakarra  
hazitzekoak hor uzten ditut  
bi seme ta hiru alaba  
Jaun zerukoak adi dezala  
hoien amaren negarra.

## GAZTELA KALEA

Un buen día, 1972

Gabriel Celaya

Debía ser feliz.  
Todo me prometía que sería feliz:  
los pajaritos tontos y la disposición  
hacia el sí.

Me desperté pensando:  
Si todo no está bien, podría ser peor.  
Yo seguía y sumaba —mi total era el día—  
ingenuas alegrías.

Con unas flores baratas, dos entradas para el cine  
y una rara sonrisa  
—era poco, ya lo sé—  
quise hacer más libre el mundo y darte atí no sé qué.

Fue un error que llamaron mis amigos repugnante.  
Todo el mundo nos hablaba de sus dolores oscuros,  
su trágica Castilla, su angustia y su Unamuno,  
y de una niña ciega, y un burro moribundo.

Los héroes de aspaviento, Zurbarán y sus frailes,  
los mil bobos de Coria, la mugre del pasado,  
y esos niños del Sur que apuntan a toreros  
me hacen ver claramente que no soy como ellos.

Porque ellos no querían que yo fuera feliz.  
Sencillamente limpio. O vasco. Es un decir.  
Patéticos y vagos, violentos y sucios,  
los maquetos pretenden engañarme. Mas veo:



Armas, polvo y sudor, ¡qué mal olía el Cid!  
 ¡Cuánto orgullo y cerrazón! ¡Castilla para morir!  
 En mi país se respira más abierto y más sano:  
 ¡La mar y la brisa limpia! ¡Euzkadi para vivir!

Se lo he cantando a mi amor. ¡Sí!  
 Que se queden los del Sur con su fiesta nacional,  
 la nuestra es sólo vivir, y no matar, no matar  
 ni tan siquiera un torito. No matar en general.

Euskadin Castillan bezela  
 Mikel Azurmendi, 1972

Nere Segurako aitonak  
 ogia behar zuenean  
 Castillara joaten zen  
 jornalartzara,  
 morrointzara.

Bere igitaia  
 trebenetakoa omen zen  
 bai, hori bai...  
 Hamar haur zituen gosez  
 etxean  
 bai!, hori bai!

Castillako jornalariak  
 ogia nahi dutenean  
 Goierrira etortzen dira  
 jornalartzara,  
 fabriketara.

Kanpokoak pizkorrak  
 omen dira peontzan  
 bai, hori bai...  
 Hamaika haur badute  
 gosez etxean  
 bai!, hori bai!

Castillako soroez  
 eta Goierriko tximiniez  
 nere aitona eta kastellanoak  
 jabetuko balira,  
 ez litzake  
 ihes gehiagorik ikusiko  
 ez Castillan, ez Seguran.  
 Bai, hori bai!  
 Bai, hori bai!

PEDRO AXULAR KALEA  
Axular (Urdazubi, 1556 – Sara, 1644)  
Gero, 1643

San Agustinek anitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko puntu hunen gainean. Kontatzen du nola bere bizitze gaixtoaren utzteko ingurunera zenean, ibili zen ezin etenduz, ezin partituz, eta bere baitan ezin deliberatuz. Kontatzen du halaber, zenbat trabu edireiten zuen, zenbat gerla egiten zioten bere lagunek, okasionez eta aztura gaixtoek. Alde batetik desiratzen zuen bide onean iartzea, hartara bulkatzen zuten bere ama sainduaren nigarrek, konzientziaren autsikiek, eta Iainkoaren manamenduek. Eta bertzetik trabatzen eta gibelatzen zuten leheneko usantzek, eta guztiz ere emazteen balakuek, hitz ederrek eta plazerek. *Tenaciter colligabar a foemina (Lib. 8 Confess. cap. 1)*. Emazteek zedukaten bortizki lotua. *Dixeram da mihi castitatem et continentian, sed noli modo. Timebam enim, ne me cito exaudires eta sanares a morbo concupiscentiae, quam extingui (8 Confess. cap. 7)*. Emazteetarik apartatzea, hain zeikan gaitz eta gaitzi, ezen bere otoitzak ere, hetzaz geroko, ethorkizuneko egiten baitzituen. Zeren beldur zen, entzun zezan berehala Iainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin bere gogoan zerabiltzanak, gibela ziatzon. Egiteko hunetan zebilanean, erraiten zioen Iainkoari: *Modo, ecce modo, sine paululum (8 Confess. cap. 6)*. Ha, Iauna, utztazu apur bat, igurikazu bertze apur bat, ez lehia, ez kexa, ez berantets, sarri naiz zurekin. Hunela erraiten zuen, hunela luzatzen zuen. Eta luzamendu hautan zebilala, denbora handia iragan zeikan. Ordea gero ere hura asko goiz bihurtu zen, etzen azken ponturaino egotu. Aitzitik, alde batetik eta bertzetik bere kontuak eginik, erran zioen, deliberamendu handi batekin, bere adiskide bati: *Ego iam me abrui, ab illa nostra spe et ideo servire statui, ex hac hora, in loco hoc aggredior (8 Confess. cap. 6)*. Nitzaz denaz bezan batean, ni kanpoan naiz munduko egitekoetarik, banalorietarik eta esperantza guztietarik,

nik hautsi dut munduarekin, egin dut harekikoaz, eta deliberatu dut Iainkoaren zerbitzatzera. Eta orai bereon, presenteon hasten naiz: ezta ia gehiago geroko gerorik, luzamendurik, eta ez epetan ibiltzerik.

Eta hala, erran bezala, egin ere zuen. Anitz luzamendu erabili zuen, baina azkenean guztiak, eta asko goiz, utzi zituen. Baina guk eztugu hala egiten, egunetik egunera gabiltza, beti prometa, beti gogo har; eta behin ere ez eten, behin ere ez delibera, eta ez konpli, beti nahi, beti nagi, nahikunde hutsetan, desirkundetan, denbora guztia gal, eta hala gaudezila, heriotzeak atrapa, atzeman eta har.

Ikusiko duzu iende handi batzuen etxeetan Herkules sendo famatu hura pintatua, makila-borra bat, edo mailu handi bat eskuan duela, baitirudi ezen hartzaz, etxean sartzen diren guztiei buruak hautsi behar derauztela. Ordea nola Herkules hura harriz, zurez edo kobrez egina baita, edo pintura bat baizen ez baita, geldi dago, keinatzea egiten du eta ez bertzerik. Hala dira bada, gerotik gerora dabiltzanak ere, keinatzen dira, eta eztute aurtikitzen: destatzen dira, eta eztute desarratzen.

Erraiten dute eginen dut, eta eztute behin ere egiten. Hala daudela denbora guztia iragaiten zaie, eta berak ere iragaiten, finatzen eta akatzen dira.

EXTREMADURA KALEA  
Cacereño, 1969 / Raul Guerra Garrido

— En Bilbao se creen que somos coreanos, pero no, están equivocados, los de aquí, los guipuzcoanos, sí que son listos y saben de dónde somos. Todos cacereños, no falla, haz una gamberrada, verás cómo cien tíos te insultan al mismo tiempo, “¡Cacereño!”. (...)

— Yo sí soy cacereño, no de Badajoz. De Plantón de Arriba — dijo un tal Hermelando.

— Hombre, yo estuve una vez en Plantón, en la fiesta de la Negrilla. Fui en bici —dijo Pepe.

— Pues hay un cerro de kilómetros.

Sin querer, entre ambos cacereños auténticos se despertó una corriente de simpatía, además eran los más jóvenes del grupo. Anduvieron juntos el resto de la tarde.

— Estos guipuchis son más listos que el hambre, están en todo, fíjate, Pepe, mira hasta qué culito de chapa le han metido al jamon para que no gotee a la distinguida clientela.

Eleuterio señalaba el techo de la tasca, plagado de jamones, con ganas de armar bronca.

— Venga, no la busques. Yo he venido aquí a trabajar y tengo trabajo, ¿no? Pues entonces tranquilo —dijo Pepe.

— Trabajo no. Te han metido en la campana, que no es lo mismo. ¿Quién crees que quiere hacer un trabajo como ése? Un muerto de hambre como tú; ¿cuantos vascos has visto bajar a la campana?

— A mí qué me cuentas. No tengo ganas de averiguaciones. Te veo a ti y me sobra, pero ahora, en esta barra, cacereños o vascos, todos bebemos el mismo vino en los mismos vasos.

— Eso te lo crees tu, no los conoces, cuando quieras prosperar te cerraran la puerta. Los jefes, los maestros, todos son vascos. No te fíes de las apariencias.

— No me fio ni de mi padre. Además, eso que dices me importa un bledo, me voy a Alemania.

— No merece la pena. Yo estuve varios años, aquí gano casi igual y encima estoy en mi patria —dijo Hermelando.

— En la patria de los patagordas éstos, querrás decir —siguió Eleuterio—. Hasta tienen un idioma que no hay dios que lo entienda, baibaietorrigorri. ¡Bah!

— Tengamos la fiesta en paz. Otra estación.

Fueron chiquiteando y aproximándose al record de Eleuterio, los cincuenta. En la calle pegaban bandazos de una acera a otra. Tenían sus discusiones con los transeuntes.

— Mira, mira las patagordas. Estas gachís tienen unas piernas con bola de futbolistas, no me extraña que los tíos no las hagan ni caso —dijo Eleuterio.

— Pues a mí me gusta que alternen solas, es lo moderno, lo mandao, a buenas horas en mi pueblo harían esto. Las llamarían zorras.

— Muchacho, Pepe, no desbarres. Tu lo que necesitas es estar con tu gente, vente a vivir al barrio, le hablare a la patrona, me hace mucho caso —hizo un guiño pícaro—, así no se te pondra la cara de baba que tenías antes. Y ahora, ¡a cantar!

Cantaron a pleno pulmon hasta que les mandó callar un municipal. Cuando se fue volvieron a cantar. Pepe, aun lejos del record, había dejado atrás la tristeza. Sin embargo se recogieron temprano. (...)

En la mesa de la pensión, Pepe disimuló como pudo la melopea. No era el único achispado.

— Te he visto esta tarde en lo Viejo, chaval —dijo el butanero.

— Pues no saludaste.

— No te juntes con esa chusma, tu eres buen chico.

— Yo también soy de Cáceres, ¿pasa algo?

— Nada, hombre, no te lo he dicho por eso.

GABRIEL ARESTI IBILBIDEA  
Poeta, dramaturgoa... (Bilbo, 1933-1975)

Zorrotzako portuan aldarrika, 1963

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.  
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.  
Bien bitartean  
Anton eta Gilen zeuden  
zerrarekin  
tronko hura erdibitzen.  
Sokarekin...  
Eztago kablerik...  
Bestela...  
Tira eta tira,  
orain Anton,  
gero Gilen,  
ez naiz hilen,  
Gilen.  
Hemen euskeraz  
ta han erderaz.  
Biraio egiten zuten.  
Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,  
berdin tratatzen baitu  
erdalduna  
eta  
euskalduna.  
Arbolaren neurriak hartu nituen.  
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.  
(Amak gauean pentsatu zuen erre kara  
erori nintzela). Eta esan nuen:  
*Beti paratuko naiz  
gizonaren alde.*  
Gilen.  
Anton.

Euskalkideak  
hitzaldia, Baiona 1972

Euskal Herri libre bat nahi dugu. Herrien kontzierto internazionallean leku bat, toki prestu eta ohoretsu bat deseoa diogu gutaz erditu zen herriari. Baina kontuz, herriaren libertateak berekin bere seme [seme-alaba] guztien libertatea ekarri behar du. Euskaldunek gatibu iraun behar baldin badute, nola apurtuko ditu Euzkadik bere kateak? Erorkizuneko Euskal Herri honetan guk ere nahi dugu geure parte. Zenbat tokatuko zaigun zortean? Agian lau harri, hiru ezki eta bost urki. Gutxi baldin bada ere, lau harriok, hiru ezkiok eta bost urkiok geuretzat nahi ukanen ditugu, eta inori ere, ez ezeren izenean eta ez jainkoren ez aberriren aitzakian, ez dizkiogu inola eta inondik ere lapurtzen utziko. Euzkadiren libertateak euskaldunen libertatea esan nahi du, eta ez jabe aldaketa soil eta huts bat. Euskaldun langileak kontsolamendu barregarria edukiko du, baldin bere esplotadorearen euskalduntasunarekin kontsolatzen bada.

Irrintzi bat entzun dugu  
ezpataren aurrean,  
oskorria zabaltzen da  
euskaldunen lurrean

Zeru horren pean jaso  
behar dugu herria  
begien aurrean baitu  
etorkizun berria

## GALIZIA PASEALEKUA / CASTELAOREN OROITARRIA

Castelaoren hitzak  
1933-07-25 Día da Patria Galega

A Patria e a Terra fecunda, donde xerminan os legados da tradición que nos dara continuidade na historia, o corpo incorruptible, donde encarnou a alma atormentada da raza.

A Patria e a Terra creadora, fonte da gran forza da vida.

A Patria e o rechouchio dos paxaros, o canturreo dos grilo, o marmurio das augas e o zoar do vento.

A Patria e a sombre fresca dos castiñeiros no vran e a quentura garimosa do fogar no inverno.

A Patria e a inquedanza das sementeiras e a ledicia das colleitas.

A Patria e o fungar do vento nas ponlas secas dos carballos e o esborrifar das ondas do mar nos cons da ribeira; a cantiga misteriosa dos piñeiros e o runxido do mar nos areales.

A Patria e o arco da vella, o luar e a noite estrelecida.

A Patria e o sentimento que nos fai fillos da Terra para recibir o seu zume criador de lirismos. Por iso entristecemos no outono, choramos no inverno, sorrimos na primaveira e rimos no vran. Porque estamos feitos a semellanza da Terra; a nosa carne e terra, os nosos hosos pedra, e o sangue son os rios e os regatos.

A Patria e a Terra-nai, a Deusa perdurable e xenerosa, porque como di Pascal, primeiro nos cansaremos nos de pedirlle, que ela de darnos.

Esta e a Patria verdadeira, a Patria única que hoxe festexamos. Eu non sei de mais Patria, e o galego que no a sinta e un home moralmente imperfecto.

No tempo de Rosalia a Patria era un sentimento en continua saudade, una tristura crepuscular, o planto por unha ilusion morta, a esperanza entristecida de tanto esperar. Galiza era unha alma en pena que vagaba polo inferno frio dos camiños, enchendo de



saloucos as noites xiadas do inverno; era a negra sombra desterrada. A nosa alma, coma a dos xudeos, agardaba o miragre da resurreición para reencarnar nun corpo san e robusto, para renascer e vivir baixo a lus do sol.

Pero a saudade dos tempos de Rosalia queimóuse na fogueira dos nosos entusiasmos, e xa non choramos o pasado; cantamos o porvir porque a alma da Raza reencarnou na Terra e a nosa Patria recobrou a súa persoalidade, e quer esteriorizala en forma de Estado. Pero non para fecharse en fronteiras, sinon para desatrancalo camiño de Europa, aquel camiño branco de estrelas que unia Galiza co resto do mundo civilizado, no tempo lonxano dos Cancioneiros e do Pórtico da Gloria, cando nos non éramos mais que galegos.

¡Cando non eramos mais que galegos!

Beti Galizan / Sempre en Galiza, 1944

Sistema uniformistak Espainiako hondamen material eta morala ekarri zuela uste genuenok faltsarioak ginen. Austria eta Borboitarrek hasitako bortxa asimilistari amore eman nahi ez genuenok asaldariak ginen. Sistema federalak Espainia handiaren boterea berpiztuko zuela pentsatzen genuenok traidoreak ginen. Errepublikako Konstituzioa onartzearen autonomia errejional hutsa eskatzen eta nazionalitateen borondatea Parlamentu Zentralaren esanetara jartzen genuenok kriminalak ginen. Modu horretan, katalan, euskaldun eta galegook etengabe irainduak izan ginen kafeetan, mitinetan, prentsan, katedretan, pulpitoetan... Irain eta kalumnia guzti horietatik giroan ezer gelditzen ez dela uste al duzue? Bada, nik antzineko ulertezintasunaren aztarna argiak badaudela esaten dizuet, baina esaten dizuet halaber galego antifazisten elkartasun politikoak Pondalen desio poetiko hura betetzeko hainakoa dela: «Breogan-en semeengandik etorriko zaio argia Iberia zaharkituari».

BIZENTA MOGEL  
Idazlea (1782 – 1854)

Ipui Onak, 1804  
Sarrerako zati bat  
(Gure lehen testu feminista)

Badakit, entzunaz, beste gabe, neskatxa gazte baten izena dagoala itsatsirik liburutxo honen aurrean jardungo dutela sinuka ez gutxik, diotela beren artean inoren lumaz janzi nahi duela belatxikiak; hau da, besten beharrak hartu nahi ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik hausitzea liburuginen: asko duela gorua nahiz jostorratza zuzen erabiltzea. Nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdaldun jakitunek argiratu dituzten ipuiak? Nolako harrotasuna berriz latinezko hizkuntzarekin liburu honen asmoa agertzea? Horretarako behar litzake jakitea euskera, gaztelania, eta latinezko hiru hizkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatxa bategan! (...). Hobe ez ote da, emakumea banaiz ere, igarotzea orduak honetan, zer jantzi berri dan gora eta behera aitatzen baino?

Gizon egiazalea, gezurtia eta tximoa, 1804

Gizon bik irten zuten alkarrekin lurra eta herriak ekustera; bata zan egia zalea eta bestea gezurti hutsa. Zebiltzan-zebiltzan, heldu ziran tximoak zeuden baso batera. Tximo nagusi edo besten buru bezela zanak, esan zioen beste tximo mendekoai:

— Ara non dakustazan gizon bi! Zoazte eta esan egiozute datozela nere aurrera.

Egin zuten mandatua tximo batzuek, eta eraman zituzten gizon haiek tximo nagusiaren aurrera. Heldu orduko hoek,

eseri zan bera aulki eder batean; ipini zituen albo bietatik beste tximo guziak, ematen ziola bakoitzari zegokion tokia. Galdetu zion tximo nagusiak gizon gezurtiari:

— Zer diote nigatik gizonek?

— Deritzat zu zerala errege handi bat; zure inguru eta aldamenetan daudenok dirala batzuek jaun haundiak, eta besteak soldau agintarien artekoak.

Gezurra bazerion ere, jaso zuelako hitz labainekin erregetzaraino, erregeren izena aditu nahi zuen tximo nagusiak diotsa:

— Esan dezulako egia, emango zatzu sari eder bat.

Harro-harrorik gelditu zan tximo nagusia gezurrezko handikeriarekin, eta galdetu zion egiazaleari:

— Eta zuk zer diozu?

Zion honek bere artean: "Gezurra esan duenari ematen badioe hemen alako saria, nolakoa emango ez zaio egia esaten duenari?".

— Zu eta hemen zaudeten guziok zerate tximo batzuk eta besterik ez.

Haserratu zitzaion erregeren izena entzun nahi zuen tximo nagusiari, eta diotsa:

— Zer? Zatoz hona nor geran agertzera? Ez eman niri erregetasuna eta oni handikiena? Tximo hutstzat eman? Hil behar dezu hitz egin ez dezulako nere gogora.

Hala hil zuten egia esan zuena, eta sariztatu gezurti handia.

Ipui honek salatzen ditu lurreko asko. Gezurti hitz labain zaleek, bihotz tolestua dutenek igo ohi dute sarri leku goietara, agindupetik agintari izaitera; eta egiazaleak, gezur gorrotokoak, bihotz garbikoak, jo ohi dute goitik behera, eta asko alditan gezurra da sariztatua eta egia zapaldua.

*Gorde zaite hitz labainetatik,  
eta alde egizu gezurtietatik.*

GABRIEL CELAYA PLAZA  
 Gabriel Celaya (Hernani 1911, Madril, 1991)

Martillo, compás de paz, 1972

Martillo, compás de paz,  
 tú das a luz las estrellas con dignidad natural.  
 Tú que duras, dale y da  
 contra todas las razones, contra todo escepticismo  
 real, real, tan real. Martillo, compás de paz  
 y tú, paz, rumor del mundo que labora sin cesar,  
 arrancadme hacia algo más,  
 cantadme la libertad.

Nosotros, vascos, luchando  
 con el hierro, con lo terco, con el cansancio y la rabia  
 y allá en el sur los flamencos,  
 los enanos asexuados que gorgotean y bailan.  
 ¿En paz? ¡En paz! Pero un vasco,  
 como no acepta el Destino,  
 sólo encuentra luz si lucha con un furioso martillo,  
 porque sólo combatiendo se crea la libertad,  
 que no es nunca natural.  
 La libertad: esa vida que tenemos que forjar.

Sin lengua, 1972

Mar de Euskaria, patria abierta,  
 tú que no tienes fronteras  
 di en las playas extranjeras  
 ola más ola, mi pena.

¡Que nos arrancan la lengua!  
 ¡Que nos roban nuestro canto!  
 Y hasta mis versos son versos  
 que traduzco al castellano.

Yo que aprendí a decir “padre”  
 mas nació diciendo “aitá”,  
 no acierto con el idioma  
 justo para mi cantar.

Abro el alma a cuanto viene.  
 Busco un mundo sin historia  
 y un sentimiento de origen  
 y de dulce desmemoria.

Pero hay que hablar, hay que ser,  
 hay que decirse en la lucha,  
 y hay que extraer un lenguaje  
 de lo que sólo murmura.

¿A dónde van mis palabras?  
 ¡A dónde mis sentimientos?  
 ¡Para quién hablo, perdido,  
 perseguido por mis muertos?

¡Mar de Euskaria, rompe en llanto,  
 y en tu idioma en desbarato  
 di, ensanchándote, qué raros  
 nos sentimos hoy los vascos!

BERNAT ETXEPARE PLAZA  
 Poeta (1480-1560)

Amorosen gaztiglia, 1545

Bertze amoreak baten bezi eztirade perestu  
 Nork beria bertziari eztu nahi partitu  
 Ama birjen gloriosa hanbat bada konplitu  
 Ororenzat bera baita leial dela abastu.

Amorosek badagite behin bere nahia  
 Handiago jiten zaie bertze nahikaria  
 Ezi uken behinere bere konplimendua  
 Beti peitu deramate bere mende guzia  
 Emazte eta gizon orok har amore Maria  
 Eta orori baitekegu berak konplimendua.

Andre honak uken dizi ederretan grazia  
 Ehork hura gaixteriaz ezin lezan inbia  
 Bana bistaz hiltzen zuien nahikari satsuia  
 Figuraren ekusteaz dakikezu egia.

Itsasoan hur guzia zeruietan izarra  
 Oihanetan izalori lur guzian belarra  
 Egunari iguzkia gau belzari iluna  
 Lehen faltaturen dira ezi hura gugana  
 Baldin eta egiazki gu bagaude hargana.

#### Emazten fabore, 1545

Andren gaiz erraile orok bear luke pensatu  
 Bera eta bertze oro nontik ginaden sorthu  
 Ama emazte luien ala ez nahi nuke galdatu  
 Amagatik andre oro behar luke goratu

Gizonaren probexuko emaztia bethi da  
 Oro behin haietarik sortzen gira mundura  
 Sorthu eta hil ginate hark haz ezpaginiza  
 Haziz gero egun oroz behar haren aiuta.

Haren eskuz osoan behar soinera eta iatera  
 Eri denian andre gabe galdu gizon egurra  
 Hil badadi hura nola nor doake gainera  
 Ordu oroz behar tugu ezta heben zer duda

Emazterik ezten lekuian eztakusat plazerik  
 Ez gizona ez exia behinere tsahurik  
 Exian den gauza oro gaizki erreglaturik  
 Parabizuian nahi enuke emazterik ezpaliz.

Irudi zait emaztia dela gauza eztia  
 Donario guzietan guziz gauza emia  
 Gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia  
 Hartzaz gaizki erraitia bilania handia.

Munduian ezta gauzarik hain eder ez plazentik  
 Nola emaztia gizonaren petik buluzkorririk  
 Beso biak zabaldurik dago errendaturik  
 Gizonorrek dagiela hartzaz nahi duienik.

Io badeza dardoaz ere gorpuzaren erditik  
 Ainguruiak bano oboro ez larrake gaizkirik  
 Bana dardoa ematurik zauriere sendoturik  
 Bere graziaz ezarteintu elgarreki baketurik.

### Kontrapas, 1545

Garaziko herria benedika dadila  
 Heuskarari eman dio behar duien tornua.

Heuskara, ialgi hadi plazara

Bertze jendek uste zuten ezin eskriba zaiteien  
 Orai dute forogatu enganatu zirela.

Heuskara, ialgi hadi mundura

Lengoaietan ohi hintzan estimatze gutitan  
Orai aldiz hik behar duk ohorea orotan.

Heuskara, habil mundu guzira

Bertzeak orok izan dira bere goien gradora  
Orai hura iganen da bertze orenen gainera.

Heuskara, ialgi hadi plazara

Baskoak orok preziatzen heuskara ez iakin arren  
Orok ikasiren dute orai heuskara zer den.

Heuskara, ialgi hadi mundura

Oraidano egon bahaiz inprimitu bagerik  
Hi engoitik ebiliren mundu guzietarik.

Heuskara, habil mundu guzira

Ezein ere lengoajerik ez frantsesa ez bertzerik  
Orai ezta erideiten heuskararen parerik.

Heuskara, ialgi hadi dantzara.